

HEZIKETA ETA KULTUR PROGRAMA 2026-2027

Gure programazioa hezkuntza-maila bakoitzeko ikasleei zuzenduta dago.

Arkeologiaren oinarri nagusiak ezagutu nahi al dituzu?
Gure **iragan erromatarra** ezagutu nahi al duzu duela 2.000 urteko Oiassoko aztarnetaz baliatuta?
Eta nolakoa izan zen **baskoien eta erromatarren arteko topaketa**?

Oiasso Museoan zure ikasleen interesa pizteko aukera ematen dizugu bisita gidatu dinamikoetan, tailerretan eta jolasetan parte hartuz.



DEAC

Hezkuntza eta Kultur Ekintza Saila

<https://www.oiasso.com/eu/hezkuntza>

Zure bisita antolatu!

Oiassoko Hezkuntza eta Kultur Ekintza Sailak lanean dihardu museoa herritarrengana hurbiltzeko. Talde-arduradunek doako bisita izango dute, museoko programak eta baliabideak aurretik ezagutzeko.

Edukiak maila bakoitzeko oinarrizko gaitasunak lortzen lagundu nahi duten kurrikulu-helburuetara egokituta daude.

Honetaz gain, Lehen Hezkuntzarako zuzenduriko material didaktikoa eskuragarri dago.

Museoko hezkuntza programaren oinarriak honako hauek dira:

Bisita gidatuak

Animazio tailerrak

Museoko Irtenaldiak

Zinemaldi arkeologikoa



BISITAK MUSEOAN

Bisita gidatuak

NORI ZUZENDUA:

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko taldeei.

Museoko bisitak maila desberdinetako ikasleei egokituta daude. Galdetu museoan eta gure gidek informazio gehiago eskainiko dizuete bisita zuen asmoetara egokitzeko.

HELBURUAK:

- Oiaso erromatarra Irun hiriarekin identifikatzea, inguruko aztarna arkeologiko garrantzitsuenak aztertuz.
- Bertakoen eta erromatarren bizimodua ezagutu.



ANIMAZIO TAILERRAK

Izaera komunikatiboa eta parte-hartzailea duten tailerrak eskaintzen ditugu era ludikoan, historiarekin eta arkeologiarekin harremanetan jartzen dira taldeak.

ALEA JACTA EST TAILERRA

Tamaina handiko taula batean, taldeek Oiassoruntz daramaten bideak jarraituz, erromatarren garaiko eguneroko bizitzako ezaugarriak lantzen dituzte orduko jolasen bidez.

VENI VIDI BITXI TAILERRA

Telebistako lehiaketa gisa, erromatarren garaiko edukiak landuko dituzte, modu ludiko eta parte-hartzailean, ikastetxeetako nerabeek (12-17 urte). Tailerraren bidez hurbiltasun-loturak ezarriko dituzte ohitura haiekiko, alderdi askotan bizitza/ohiturak/gustuak ez direla hainbeste aldatu azpimarratuz.



ANIMAZIO TAILERRAK

EGIPTOKO MISTERIOAK

Osirisen mitoa eta Hildakoen Liburua aztertuko dute eta egipziarren heriotzaren inguruko sinesmenetara hurbilduko dira ikasleak. Idazkera hieroglifikoetako eredu-plantilatik abiatuta, parte-hartzaileek mezu sekretu bat idatziko dute idazkera hieroglifikoko ikurrekin, benetako eskribak izango balira bezala.

ERROMA ETA ZINEA

Erromatar garaiko historiaren gidoi bat lantzen dute ikasleak. Ondoren gidoia aurrera eramateko antzezle moduan eszenen protagonistak bilakatuko dira. Guztia fotogramen bidez jasotzen da laburmetrail bat osatuz.

IBILBIDE BAT TERMETATIK

Ikastetxeetako behar bereziko taldeei zuzenduta dago. Helburua erromatar garaiko termen egiturak eta funtzionamendua ezagutzea da. Bi atal ditu: Oiasoko termen aztarnategi arkeologikotik ibilbidea eta esperientzia sensoriala izateko eremua.



MUSEOKO INTENALDIAK

Ibilaldi arkeologiko-kulturalak Oiassoko nekropolia eta Irugurutzetako meatze-ingurunea ezagutzeko.

Irugurutzetako meatze ingurua

Bisitaldi gidatu bat proposatzen dugu Irugurutzetako siloetan, labeetan eta meatzean, erromatar meatzaritza eta industrializazio garaia (XIX.mendea) landuz. Bidaia Irugurutzetaraino “Tren Txikitoan” egiten da.

Nekropolia: Oiasso hildakoen hiria

Bisitaldi gidatu honetan, Irungo Erdi Aroko Xantalen baselizako nekropolira joango gara eta lurrazpian agertutako erromatar garaiko hilerria ikusiko dugu.

TIR: Nekropolia + Tour Irun Romano

Bisita gidatu interaktiboa, TIR aplikazioarekin, Irungo kaleetan barrena Oiassori bizitza eman dioten aztarnategi arkeologikoak ezagutzeko. Ibilaldi honetan Xantalen ermitan sartuko gara, antzinako erromatar nekropolia.



XXVI FICAB

Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa

2026/11/16– 2026/11/21. <https://www.ficab.org/>

FICABeko HEZKUNTZA SAIOAK ikastetxeei bereziki **zuzenduta**, bere helburu kurrikularrei lotuta eta alde didaktikoak zaintzen dituzten emanaldiak eskaintzen ditu.

Bestalde, Hezkuntza Saileko filme guztiak **jatorrizko bertsioan** aurkezten dira, eta **euskaraz azpititulatuta** egongo dira.

Hezkuntza Saileko filmen proiektzioak:

Azaroaren 17-18-19

Ordua: 11:00-13:00

Doako sarrera. Eserleku mugatuak.

Erreserba egitea beharrezkoa da. 943 63 93 53

Filmak ONLINE ikusteko aukera egongo da ere.



egitasmoa: Ikastetxeek beraien ikasleekin inguruan duten ondareari buruz sortutako film laburrak (5 minutu) aurkeztu dezakete zinemaldian, urriaren 15era arte.

<https://www.oiasso.com/eu/jarduerak/ark-mo-hezkuntza-sailaficab>




FICAB IBILTARIA: FICABeko Hezkuntza Saileko film irabazleak eta unitate didaktikoak dituzten filmak, ikastetxeetan ikasturte osoan ikusteko aukera eskaintzen da. [Ficab Ibiltariaren programa](#)



Programak kartara diseina ditzake irakasleak.
Ekimenak behar berezietako taldeei egokituta daude
(ikusmen urritasuna, Down sindromea, autismoa,
gizarteratzea ...).
Hezkuntza Zerbitzuarekin zehaztu beharra dago.
Hizkuntzak: euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa.

Museoan baliabide pedagogiko hauek eskuragarri
ditugu:



Erreserbak egiteko:

Oiasso Erromatar Museoa

943.63.93.53

info-oiassomuseo@irun.org

www.oiasso.com

Ordutegia

Urria-Maiatza

Asteartea-asteazkena-osteguna-igandea:

10:00-14:00

Ostirala-larunbata: 10:00-14:00 / 16:00-19:00

Ekaina-iraila

Asteartetik-larunbatera: 10:00-20:00

Igandea: 10:00-14:00

Astelehenetan itxita